PLEGU TEKNIKOAK
KONTRATAZIOA: PROZEDURA IREKIA
IZENBURUA: ZAINDU UROLA KOSTA: AKONPAINAMENDUA

1. AURREKARIAK

Etorkizuneko aurreikuspenen arabera, mendekotasun-tasak gora egingo du datozen urteetan. Hori dela eta, Espainian zahartzeak garrantzia izango du, eta, hortaz, zaintzari lotutako enpleguak gora egingo dute. Horrek, besteak beste, eragina ekarriko du adineko pertsonen zaintzaileen roletan.

Adineko pertsonek kalitatezko zaintza behar dute, eta zaintzaileek horretarako, kualifikazioa izan behar dute, mendekotasuna duen pertsonari behar duen arreta egokia emateko. Horrek eskatzen du, prestakuntza teknikoez gain, zeharkako gaitasunak ere bereganatzea.

Gaur egun, egoitzek eta zentro espezializatuek (edota familiek) zaintzaile prestatuak eskatzen dituzte, adinekoentzako traturik onena eskaintzeko. Baina profesionalizazio hori lortzeko hainbat zailtasun aurkitu dira, lanean ari diren langileen prestakuntza beharrak asetzeko zailtasunarengatik; edota prestakuntza ematen den ordutegi eta tokia lanarekin bateraezina delako; edo lehen aipatu bezala, ematen diren oinarrizko prestakuntza teknikoez gain bestelako ezagutza batzuk ere behar dituztelako; besteak beste.

Hori kontuan hartuta, Urola Kostan aipaturiko arazoei erantzun nahi zaie. Hain zuzen ere, zaintza sektorearen beharra eta pisua areagotzen joango dela jakinda, kalitatez eta zentzuz egoera honi erantzuten zaiola bermatu nahi da. Horri aurre egiteko, menpekotasun egoeran dauden pertsonen bizitza kalitatea hobetzen lagunduko duten ekintzen artean, zaintzaileen kualifikazio eta profesionalizazioak du pisua.

Hori dela eta, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei aukera emateko, eta, aldi berean, aipatu den zaintzaileen kolektiboak dituen lan beharrei erantzuteko, eskualdean “Zaindu Urola Kosta” ekimena bideratzen ari gara hainbat erakunde ***“Elkar-EKIN Lanean” enplegagarritasunerako eta aktibazio inklusiborako estrategia***, Gipuzkoako Foru Aldundiak ***eta Lanbide-Euskal Enpleguak*** ematen duten finantzaketa bidez.

Aurrera eramango den ekimen horretan, parte hartuko duten pertsonen zuzeneko jarraipen pertsonalizatuari garrantzi berezia ematen zaio. Kontuan hartuta, azken helburua pertsonak merkatuan txertatzea dela, motibazioa, jarrera nahiz lan mundura txertatzeko egoerak aztertu eta landuko dira, besteak beste. Egiten den esku-hartzeak, azken helburu hori izango du kontuan.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren objektua izango da: “*SSCS0208 Mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan gizarte-eta osasun-arreta”* (2. maila) profesionaltasun ziurtagiria lortzeko prestakuntzetan parte hartzen duten **pertsonei akonpainamendua egitea.**

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako arreta integrala eskaintzea da helburua, tutoretza eta bitartekotza-ibilbideak garatuz. Euren lan baldintzak egokiak direla bermatu nahi da, bizi kalitatea hobetzeko.

Azpi-helburuak:

- Zeharkako gaitasunak bereganatzeko norberaren gaitasun eta ahulezien kontzientzia hartzea
- Arreta integrala eskaintzea
- Lan ibilbidea zehaztea
- Pertsonen beharrak identifikatzea
- Behar zehatz bat identifikatzen den kasuan, dagokien eragileei deribaketa egitea, betiere proiektu arduradunaren oniritziarekin
- Pertsonen garapenari bideratutako metodologiak aplikatzea
- Saioak hazkuntza profesionalaren ikuspegitik bideratzea
- Pertsona bakoitzak ikaskuntza prozesuan izan ditzaken beharrei erantzutea, ahalduntzeko, motibatzeko eta lan mundura txertatzen laguntzeko

3. ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUA

Akonpainamenduak, pertsonaren egoera eta beharrak kontuan hartuko ditu eta puntu horretatik lagundu, bere prozesuan zehar ahalduntzeko, motibatzeko eta lan mundura txertatzen laguntzeko, edota txertatuta daudenei euren ibilbide profesional eta pertsonalean laguntzeko.

Akonpainamenduarekin laguntza psikosoziala emango zaio pertsonari, gizartean eta lan munduan autonomiaz jarduteko.

Zehazki hauek dira kontuan hartu beharrekoak:

- Urola Kostako eskualdean,"*SSCS0208 Mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan gizarte-eta osasun-arreta*" (2. maila)ko bi profesionaltasun ziurtagiri jarriko dira martxan eta talde bakoitzean hamabost parte-hartzaileei **akonpainamendua egitea** aurreikusten da (30 parte-hartzaile guztira).
- Talde bat aurrez aurre izango da eta bestea online eta Oteitza Lizeo Politeknikoak emango ditu bi prestakuntza horiek.
- Esleitua izango den enpresak Zaindu Urola Kosta proiektuko fase honetan parte hartzen duten eragilearekin koordinazioan lan egingo du.
- Esleitua izango den enpresak, erabiltzaile bakoitzarekin egin beharreko saioak zehazteko koordinazio lanak egingo ditu: deiak, jarraipenak, egutegiak ixtea, etab.
- Online saioetarako erabiltzen den plataformak arazo teknikoak emango balitu, enpresak konpondu beharko lituzke, horretarako harremanetarako telefono zenbaki bat erraztuko zaie erabiltzaileei

Zer eskatzen da. Ekintzak:

- Zaindu Urola Kosta proiektuan parte hartuko duten 30 pertsonei **akonpainamenduak egitea**.

Nola egingo den:

- Akonpainamendua bi modalitateetan eskainiko da, eta parte-hartzaile bakoitzak aukeratuko du zein modalitatean egin nahi duen (aurrez aurre edota online).
- Akonpainamenduko saioak online egiten badira, saioetarako erabiliko den web aplikazioak (zoom, meet….) honakoak jaso beharko ditu: egiten diren saioen erregistroak eta iraupena

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Akonpainamenduko saioak aurrez aurre egiten badira, saio horiek eskualdean egingo dira, Zaindu Urola Kosta ekimenean parte hartzen duten eragileren baten egoitzan
- Erabiltzen den metodologian kontuan hartuko dira ondorengo eskuhartze irizpideak:
    - Genero-ikuspegia eta aukera berdintasunaren printzipioa sustatzea
    - Giza jarera eta balioak (lanean aplika daitezkeenak) indartzea
    - Aniztasunarekiko arreta
- Egingo diren orduak horrela banatuko dira:
    - **Talde 1 (aurrez aurreko Lanbide Ziurtagiriko ikasleen akonpainamendua):**
        - Parte-hartzaile bakoitzari ordu eta erdiko 6 saio egitea prozesuan zehar (215 ordu izango dira, parte-hartzaile kopuru maximoa lortuko balitz). 15 partaide baina gutxiago lortzen badira, esleitua izango den enpresak aukera izango du dauden parte-hartzaileen artean saio gehiago egiteko.
        - Kudeaketa lanetarako, 80 orduko poltsa egongo da
    - **Talde 2 (online Lanbide Ziurtagiriko ikasleen akonpainamendua):**
        - Parte-hartzaile bakoitzari ordu eta erdiko 3 saio egitea prozesuan zehar (127,5 ordu izango dira, parte-hartzaile kopuru maximoa lortuko balitz). 15 partaide baina gutxiago lortzen badira, esleitua izango den enpresak aukera izango du dauden parte-hartzaileen artean saio gehiago egiteko.
        - Kudeaketa lanetarako, 60 orduko poltsa egongo da
- Erabiltzaile bakoitzaren lanketa, euskaraz edo gazteleraz, erabiltzaileak hautatutako hizkuntzan egingo da

Guztira ekimena aurrera eramateko **342,5 ordu** egingo dira.

4. PARTEHARTZAILEAK

Prestakuntzetan parte hartzen duten parte-hartzaileak, 15 parte-hartzaile talde bakoitzeko (guztira 30)

5. EPEAK ETA EGUTEGIA

2023ko urrian hasi eta 2024ko urrira arte izatea aurreikusten da.

6. PROPOSAMENEAN AURKEZTU BEHAR DENA

6.1. Eskaintza teknikoa

- Akonpainamenduko saioak egiteko ekintzak eta metodologia
- Ekintza bideratuko duen pertsonen curriculuma eta gonbidapenean eskatzen diren ekimenekin izandako eskarmentua (esperientzia baloratzeko, aurkezten diren pertsonen CVean, adituek ekintza horri eskaini dioten denbora zehaztuko da, hilabetetan). Berdintasun eta generoari buruzko prestakuntza baloratuko da kontratuari atxikitako pertsonen artean.

6.2. Eskaintza ekonomikoa:

Hurrengo atalean zehaztutako irizpideen arabera.

7. AURREKONTUA

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Jasotzen diren proposamen eta aurrekontuetan, eskaintzaren kalitate teknikoa eta aurkezten den aurrekontuari erreparatuko zaio, besteak beste. Aurkezten den orduko prezioa gehienez ere **66,5€** izango da (Bez gabe) Guztira **22.793,38**€ + BEZ izango da aurrekontua gehienez.

Diru-eskaintzan adierazi behar da atal bakoitzaren kostu osoa eta orduko prezioa, honela zehaztuta:

i. Orduko kostua
ii. Proiektu osoak duen kostua
iii. Prezio guztietan berezita adieraziko dira oinarria eta BEZa

Aurrekontuan sartuta egongo dira zerbitzua eskaintzeko beharrezko diren baliabide eta gastu guztiak, hala nola:

- Zehaztutako metodologiak aurrera eramateko beharrezko diren lan-material guztiak
- Garraio eta joan etorrien gastuak
- Parte hartzaileei eman beharreko dokumentazioa, inprimakiak
- Eskaerak egiten laguntzeko nahiz osatzeko beharrezko diren lan eta baliabide guztiak

Oharra: erabiltzen ez diren orduak ez dira fakturatuko.

Esleipendunak BEZa salbuetsita izango balu, hori adierazten duen **agiria aurkeztu behar** du proposamenarekin batera. Udal Elkarteak jasotzen dituen proposamenen eskaintza ekonomikoak alderatzeko oinarria erabiliko du (prezioa BEZik gabe).

8. ORDAINKETA MODUA ETA FAKTURAZIOA

Zerbitzua fakturatuko da era honetara:

Ordainketa nola egingo da: Bi taldeetako akonpainamenduko 2. saio guztiak amaitzen direnean, %50 fakturatuko da; eta, gainontzekoa, praktika aldia amaitu ondoren, betiere, fakturazio bakoitza baina lehen dagokion txostena aurkeztu eta teknikariaren oniritzia jaso ondoren.

Jaulkiko den faktura elektronikoa izango da eta honakoa jasoko du:

- Egitasmoaren izena: ZAINDU UROLA KOSTA: AKONPAINAMENDUA
- Egindako lanen zerrenda eta ordu kopurua
- Diru-laguntzaren erreferentzia: "*Elkar-EKIN Lanean" proiektua, Enplegagarritasun eta Aktibazio Inklusiboko Estrategia, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatua*

Faktura oker balego, egin beharreko zuzenketak egin beharko dira (kontzeptuan, egindako lanen zerrendan, ordu kopuruan…) eta faktura-dokumentu berria aurkeztu beharko da.

9. EKIMENEAN ZEHAR ETA AMAIERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- Pertsona bakoitzarekin egindako saio bakoitzeko akta jaso eta sinatuko da (erabiltzaileak eta

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

akonpainamendua egiten ari den teknikariak). Online kasuetan, ez da erabiltzailearen sinadura eskatuko; horren ordez, aktarekin batera, pantailaren argazkia eta aplikazioaren erregistroa jasoko da, eta saioa egiten ari den teknikariaren sinadura.

- Pertsona bakoitzarekin saio bakoitzean lantzen den guztia ***pertsonaren fitxa*** dokumentuan jasoko da (fitxa bat egiten den saio bakoitzeko).
- Pertsonaren fitxa bidaliko zaio proiektu koordinatzaileari talde guztiaren akonpainamendu saio bakoitza amaitzen denean.
- Pertsonaren fitxak ondorengo puntuak jaso beharko ditu:
    - Pertsonaren jarrera
    - Pertsonaren motibazioa
    - Prestakuntzaren aprobetxamendua
    - Lanerako orientazioa eta helburua
    - Pertsonaren ekimenarekiko balorazioa
- Erabilitako euskarriak
- Hasierako proposamenean aurkeztutako CVak (adituak) aldatuko balira, ondo justifikatu beharko da, aurkezten diren ordezko CVek eskarmentua badutela eta nahikoa esperientzia, eskatzen diren helburuak lortzeko

10. HIZKUNTZA

Udal Elkartearen hizkuntza politika honetan datza: euskara da gure lan hizkuntza, ahozko eta idatzizko barne komunikazioetan nahiz hornitzaileekin ditugun harremanetan. Herritar eta erabiltzaileei zerbitzua euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaintzen diegu, hauek hautatzen duten hizkuntzaren arabera.

Hortaz, enpresa esleituak bi hizkuntzetan lan egiteko ahalmena izango du. Erabiltzaileek hautatuko dute zen hizkuntzetan hitz egin. Bestalde, sortzen diren txosten eta euskarriak bi hizkuntzetan egongo dira.

11. GENERO IKUSPEGIA

Pertsonekin egindako saioetan erabiliko diren testu eta irudietan genero ikuspegia kontuan hartuko da. Horretarako, Udal Elkartearen oniritzia jaso beharko dute irudi naiz erabilitako testuek.

12. ZERBITZUA GAUZATZEKO JARRAIBIDEAK

Kontratua Urola Kostako Udal Elkartearen zuzendaritza eta gainbegiratzearekin burutuko da. Udal Elkarteak kontratuaren objektua gauzatzeko behar diren mekanismo, jarraibide eta orientabideak emango dizkio esleituari. Horretarako, bere lantaldeko kide bat izendatuko du, Udal Elkartearen izenean proiektuaren ardura izango duena. Udal Elkarteak kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko jotzen dituen jarraipen-bilera guztiak deituko ditu. Esleitua Udal Elkarteak deitzen dituen bilera guztietan parte hartuko du, koordinaziorako jarraipen-bilera arruntetara nahiz ezohiko bileretara.

Esleituak kontratatutako eskaintza eta proposamenaren gainean aldaketak edo egokitzapenak egin nahi baditu (edukietan, epeetan eta abar) proiektu arduradunen oniritzia jaso beharko du. Aldaketak egiteko proposamenak idatziz aurkeztu beharko ditu esleituak.

Bestalde, kontratatutako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, esleitua, beranduenez, akonpainamendu saioa hasi baino 5 minutu lehenago egongo da prest.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Proiektua diruz laguntzen duen erakunderik balego, horiek aipatuko dira esleipendunak sortzen dituen euskarrietan.

13. DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

Proiektuan zehar partaideek partekatzen duten informazio guztia konfidentzialtasunez zainduko da. Horretarako, Udal Elkarteko proiektu buruak azalduko dio enpresa esleituari bete beharreko prozedura.

Enpresa esleituaren betebeharra izango da parte hartzen duten partaideei datuen gaineko sekretua zaintzea, datu horien izaera konfidentziala aintzat hartuta. Kontratatzen den enpresak proiektu arduradunei eta eraginda ikusi diren pertsonei kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke, hala gertatuz gero.

Kontratua burutzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du esleituak. Horretarako, proiektu arduradunak eta esleituak izaera pertsonaleko datuak hirugarren baten bidez tratatzeko kontratua sinatuko dute.

EGINBIDEA

Administrazio baldintzen orri hauek Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakaritzak onartu ditu, 2023ko martxoaren 15eko ebazpenaren bidez.

Sinatzailea	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA Izaskun Altuna Mariezkurrena
Kodea	Z 23/0075
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA3K5ZV.XH8Y
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu	

Ziurtagiri elektronikoarekin sinatuta / Firmado con certificado digital 2023/3/16

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus